

Eremu Urriko

Hizkuntzen Zinemaldia



## Gaur hasiko da Arabako Folklore Jaialdia

GASTEIZ

Gaur eguerdian hasiko da Arabako Nazioarteko Folklore Jaialdia. Parte hartuko duten sei taldeak —Ipar Osetia, Italia, Grezia, Senegal, Lituania eta Perukoak— Gasteizko kaleetan ariko dira gaur, eguerdian eta arratsaldeko 19.30etatik aurrera, eta berdin egingo dute bihar. Ekitaldiotan taldeak hiriko erdialdean ariko dira, adibidez, Diputazioaren aurrean edo Foru plazan.

Vital Kutzak eta Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailak lagundutako jaialdi honek etzi zita nagusietako bat eskainiko du Gasteizko Principal antzokian, gaueko zortzietan sei taldeak elkarrekin izango baitira ekitaldi bateratua egiteko asmoz.

Principaleko programaren ondoren, Arabako herriek hartuko dute protagonismoa eta taldeek, besteak beste, Audio, Aramaio, Legutio, Oion, Agurain, Murgia eta Amurrio bisitatuko dituzte. Azkenik, igandean izango da amaiera ekitaldia.

**EUROPA** Partaidetza  
**AMERIKA** anitza gertatu-  
**AFRIKA** ko da. Esate-  
rako, Ipar Osetiak Skyfy taldea izango du ordezkari. 1986. urtean sorturik, Errusiako hainbat jaialditan hartu du parte eta estreinako aldiz irtingo dira Osetiatik kanpora.

Lituaniako, Greziako eta Italiako taldeek osatuko dute Europako testigantza. Lituaniako Dijūta konpainia folklorikoa da. 1979an Lituaniako Zientzietako Akademian sortu zen eta herri osoko folklorea azaltzen du ikuskarian. Greziako Karagouna elkarrekin folklorikoa da; zaharretakoa dugu —32 urte— eta Tesalia inguruko ohiturak sustatzeko jaiatu zen. Azkenik, Italiako Sbandieratori i Musici da; Faenza hirian sortua, ez da oraindik inoiz aritu Estatu espainoleko inongo jaialditan.

Amerikak eta Afrikak ere badute euren ordezkariak. Peruko Amankay eta Senegalgo Circulo de la Juventud taldeak dira. Hego Amerikako taldea 35 lagunek osatzen dute, Alfonso Rivera Floresen zuzendaritzapean. Afrikako jaialdi honetako talderik zaharrena da, 1951. urtean sortu baitzen.

# Turner: «Ingelesak EEBB interesatu ondoren interesatu dira filmeaz»

Zuzendari galesaren 'Hedd Wyn' pelikula irekiko du gaur Zarauzko zinemaldia

**G**aur iluntzean hasiko da Zarautzen Eremu Urriko Hizkuntzen Zinemaldia. Eremuak 94k zortzi mintzaira diferentien produkzioak aurkeztuko ditu kultura hauen isolamendua hautsi eta elkarren berririk emateko. Paul Turner galesak zuzendutako 'Hedd Wyn' filmeak irekiko du zinemaldia lehiaketatik kanpo.

JOSE MARI PASTOR / ZARAUZ

Turnerren lana aurtengo Oscarretarako hautatu zuten, Atzerriko Filme Onenari ematen zaion sarirako. I Mundu Gerran hildako poeta galesaren istorioa kontatzen duen filmeak Gales munduan zehar ezagutarazteko balio izan du eta «EEBBetan izandako interesak Ingalaterran ikusmina sortzeko», zuzendariak berak esan duenez.

**EGUNKARIA.**— Nola baloratzen duzu Eremu Urriko Hizkuntzen Zinemaldia eratzeke ekimena?


**PAUL TURNER.**— Zinemaldia egiteko ideia on-ona da, ene ustez. Uste dut garrantzitsua dela munduko kultura minoritario guztiak elkartzea haien berririk emateko.

**EGUNKARIA.**— Nola jakin zenuen zinemaldi honen berririk eta zein bidetatik jarri ziren antolatzaileak harremanetan zurekin?

**TURNER.**— Ez dakit zein bidetatik jo zuten ni aurkitzeko. Uste dut izan zela 'Hedd Wyn' filmari buruz zerbait entzun zutela eta orduan nirekin jarri ziren harremanetan. Zuk egin zenuen bezalaxe.

**EGUNKARIA.**— Hauxe da lehen aldia hizkuntza minorizatuen inguruan zinemaldia antolatu dena. Uste duzu esperientzia honen ondorioz kultur eremu hauetan egiten diren filmek lekua aurkituko dutela merkatu komertzialean?

**TURNER.**— Ez dut uste zinema merkatu handiak interes handirik izango duenik eremu urriko hizkuntzetan egindako filmek. Nire ustez, onartu egin behar dugu merkatu horretan diruak, negoziak agintzen duela, dirurik gehiena, etekinik handiena atera behar agintzen duela. Beraz, interesa beti egongo da beste alde batean. Dena den, nik uste dut beharrezkoa dela halako ekimenak bultzatzea arlo guztietan eta bereziki zinemari, edozein hiz-



Paul Turnerrek bere filmea aurkeztuko du gaur iluntzean Zarautzen.

GILLENEA

kuntzak, edozein herrik eta kulturak etorkizuna izan dezaten.

**EGUNKARIA.**— Ikusi duzu zinemaldira zurekin batera etorriko diren filmeetako bat edo ezagutzen dituzu zuzendariak?

**TURNER.**— Ez, oraindik ez. Ez dut inor ezagutzen.

**EGUNKARIA.**— Hilabete batzuk pasa dira zure obra Oscar sarierarako aukeratu zutenetik. Geroztik zenbait lekutan ere erakutsi duzu. Nola hartu dute ikusleek eta kritikak 'Hedd Wyn'?

**TURNER.**— Filmea oso ondo hartu dute berau erakutsi duten leku guztietan. Estatu Batuetan, esaterako, primeran hartu zuten, interes handia eta erreakzio onak eragin zituen. Gainera, gure herria ezagutarazteko balio izan zuen amerikar jende gehienak ez baitzuen Galesi buruz ezer entzun lehenago. Honek interes izugarria eragin zuen eta honen ondorioz, interesa sortu zen Ingalaterra barruan ere, eta hau ez da usu gertatzen, ez da normala Ingalaterran. Estatu Batuek interesa erakutsi dutelako interesatu dira ingelesak ondoren. Nahiko adierazgarria da.

**EGUNKARIA.**— Nolako izan zen Hollywooden bizi izandako esperientzia?

**TURNER.**— Zoragarria. Bertako jendeak oso harrera positiboa egin zigun, jarrera ona izan zuten gurekiko. Jende askok sostengatu ninduen. Atsegina izan zen zinemagile moduan, zuzendari



Pelikula Hedd Wyn poeta galesaren historia kontatzen du.

moduan agurtu izana eta mundu horrekin harremanetan izana. 'Hedd Wyn' filme galesa ez zen izan filme minoritario bat orduan. 'Belle Epoque' eta beste pelikulen maila berean izan zen. Oso sentimendu atsegina izan zen.

**EGUNKARIA.**— 'Hedd Wyn-en' zure andreak, Sue Roderickek, egiten du lan. Nola moldatu zarete zu eta emaztea elkarrekin lan egiten?

**TURNER.**— Oso konplikatu da, ez da gauza bera emaztearekin lan egitea. Nire harremanak aktoreekin diferentiek izaten dira. Andrearekin harreman mota hori

izatea askoz konplikatuago izan da. Askoz zailagoa izaten da halako kasuetan erlazioa arlo profesionalera, artistikora mugatzea.

**EGUNKARIA.**— Zertan ari zara orain?

**TURNER.**— Filme bat bukatu berri dut, hilketa bati buruz. Galeserazko izena 'Dial' da, 'Mendekua'. Filmeak emakume baten istorioa kontatzen du. Bere ahizpa bortxatu dute eta haien nebak bortxatzailea hiltzeko plana egin du eta andrea hori geldiarazten saiatuko da. Justizia eta mendekuari buruzko filmea da.